

**Aktore, gauza guztien gainetik**



Elena Aranbarri antzerkian murgilduta bizi da ▶ 23

Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2004-10-24 ▶ II. urtea ▶ 438. zenbakia

## Duela 25 urteko Estatutuaren kanpaina eskualdean gogoratuz

**GAKOAK** ▶ Lasaitasuna eta parte-hartzea aipatzen dute alderdien ordezkariak

**EMAITZA** ▶ Baiezkoak erraz irabazi zuen eskualdean eta abstentzio handia izan zen

**PERTSONAIA** ▶ Juan Jose Martinez Leunda tolosarra izan zen sinatzaileetako ▶ 4-5

**'Skate' festa eta 'reagge' eta 'soul' musika izan dira Bonberenea etxean**

**TOLOSA** ▶ 'Graffiti' lehiaketa ez zen izan azkenean; DJ-en musika izan zen festan eta gauean, Afrika eta Bad sound system ▶ 6

**TOLOSALDEA** ▶

**Azokan jende asko izatea eragin du eguraldi onak**

Krisantemo eskaintza handitu egin da, Santu Guztien Eguna gerturatzen ari dela-eta ▶ 6

INIGO TERRADILLOS



**BAR TXAPELDUN**

Taberna berria Villabonan **IREKI BERRIA** zatoz ezagutzera!  
Berria, 23 behea L-2 • Villabona



www.landrover.es

**FREELANDER BERRIA**  
NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

**EUROLAN 4x4**

Donostia-Hernani errepedea (Galarreta ondoan)  
Telefonoa: 943 33 10 06 • www.eurolan4x4.com

**TOLOSA** ▶

**Bihartik aurrera auzozainak izango dira**

Udaltzaingoak bi lagun kontratatu ditu auzoetan aritzeko ▶ 8



UZTURRETIK ▶  
RAMON OLASAGASTI

## Ur sakonetan murgilean

**E**insteinek galdetu omen zuen behin: «Zer daki arrainak igeri egiten duen errekarari edo itsasoari buruz?» Guk bizitzari buruz dakigun beste, esan nahi zuen. Batzuetan, udazkenak erazutako hostoen pare garamatza, leun-leun, gozo-gozo, itsasorantz. Bestetan, erabat uhertzen da eta beti itoztear baina beti azalean mantentzen gaituen zurrumbilo gaizto bilakatzen da. Zenbaitetan, arrain koloretzuen pezera ere bihurtzen da bizitza, *Mar adentro* filmeko protagonista gogoan eta ez da berehaldian itsasoratzeko. Batzuetan, Alaskako izokinak bezala goaz, errekan gora, korrontearen kontra, eta gutxien uste dugunean, braust! hartz batek egiten digu hatzaparka. Hurrena, haizeak gure norabide berean jotzen duela dirudi, eta gustoko portuen aiduru haizatzen ditugu guk ere belak. Ibilgu otzana eta luzea egiten dute batzuek, eta jauzika eta parrastaka, laburragoa besteek. Nolanahi ere, garai bateko Oriak bezala joanean joanean ortzadarreren edozein kolore har dezake noizbait norbere errekarak.

Ibai ertzean kainaberarekin arrainak amua noiz irentsiko zain egotea edo erre-kastoan sartu eta eskuz arrantzan saiatzea; beti erreka jotzeko beldurrez ibiltzea edo igeri ozta-ozta jakinda ere putzurik sakonenean salto egitea... Modu askotara joka liteke. Azkenean, ordea, bizitzak berak erakusten digu igerian. Inportantea da horretaz konturatzeko, igeri egin behar dela, alegia. Hosto, izokin, hartz edo pezerako arrain izan gaitzeko noizbait, eta, nahian, azkenean errekarak ahi duen lekuan itsasoratuko gaitu, baina badaezpada hobe gertuko portuen bila igerian saiatzea.

Bai, jakina, azalekoegia da poesia hau hain ur sakonetan murgiltzeko, baina hondoa gertu ikusten denean, nolabait hartu behar da arnas. Eta itolarria pasatzen denean konturatzeko da beti zein ederra den arnas hartzea.



## Tokiko Agenda 21 zazpi herritan garatzeko taldea

**ASTEKO IRUDIA** ▶ Astelehenean aurkeztu zuten Villabonako udaletxean Ernioaldeko Udaltaldea 21, Tokiko Agenda 21 garatzeko eskualdeko zazpi udalek sortua, Foru Aldundia eta

Eusko Jaurlaritzarekin batera. Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil sartu dira proiektuan. 100.000 euroko aurrekontua izango du. IMANOL GARCIA

ELENA ARANBARRI ▶ ANTZERKI IRAKASLEA

## «Istorioak era ezberdinean kontatzeko ahalmenak erakartzen nau antzerkitik»

Bere burua aktoretzat definitzen duen tolosarrak kantua, gidoigintza, zuzendaritza eta antzeppen lanak Tolosako Kultur Etxeko antzerki lanarekin batera eramaten ditu

NOELIA LATABURU

Elena Aranbarrarentzat antzerkia da bere bizitza. Hamasei urte zituela antzerki ikasketekin hasi zenetik ez da eszenatokietatik aldentu. Hemezortzi urterekin jada irakasle lanetan hasi zen. Gaur egun Tolosako Kultur Etxeko antzerki irakaslea da eta Adunako Asvinenea elkarteak proiektuan dago murgilduta.

**Zer suposat du antzerkiak zure bizitzan?**

Txikitatik izan dut bokazioa antzezpenerako. Antzerki munduaren gauzarik erakargarriena istorio berberak era ezberdinean kontatzeko ahalmena da. Eszenatoki batera igotzerakoan nahi dudana izateko as-

katasuna dut inongo moralitatekerik gabe.

**Bide luzea egin duzu antzerki munduan sartu zinenetik.**

Bai, antzerki munduan eman ditudan urratsak zenbatzuk lutzerako emango liguke, baina mundu honek ez nau nekatzen. Lana gogoz egiten denean saria jasotzen da. Teatrocirco taldean hasi nintzen eta bi urtez hemen egon ostein. Agirre antzeppen eskolara joan nintzen. Maite Agirrerren gidaritzapean. Ondoren, Bederen bat antzerki taldean sartu nintzen. Bitartean, gainera, irakasle nintzen Kultur Etxean.

**Ikasle ala irakasle. Zein nahiago?**

Esparru bakoitzak bere alderdi positiboak ditu. Gauza guztien

aurretik aktore naiz. Askotan irakasle lana ezin dut nahiko nukeen bezala burutu, gurasoek kurtso amaierarako prestatzen dugun antzezlanean arreta handiagoa jartzen dutelako benetan ikasleek antzerki munduan eman dituzten hastapenetan baino.

**Nola garatzen da zure klaseetako bat?**

Astean lau orduz aritzen gara eta gehienetan eskema berbera jarraitzen dut. Lehendabizi teoria jorratzen dut. Ondoren gorputza eta bere mugimenduak lantzen ditugu. Hau burutu ostean, ahots teknikari ematen diogu txanda. Azkenik, eta erlaxazio saio baten ostean, antzerki ariketekin hasten gara.

**Zer moduzkoa da zure aktoreek erakusten duten maila?**

Zaila da neurtzea. Hamaika pertsonak osatutako talde bakarra dudanez maila bakarra dago. Dena den, ezberdintasunak nabariak dira. Adin guztietako jendea dago, baina gutxiengo bat eskatzen dut, nik idazten ditudan gidoiak helduntzat baitira. Aurreko urteko kurtso bukaerarako saioan besteak beste, menpekotasunei buruzko lana jorratu genuen eta hau burutzeko gutxiengo heldutasuna behar da. **Gaztetxoentzat ez dago aukerarik beraz.**

Egia da hamabost urte beherakoentzat ez dagoela aukerarik gure eskualdean. Mugimendu handiagoa egon beharko litzateke zentzu honetan, izan ere Tolosa herri aktiboa den arren, benetan ikasleek antzerki munduan eman dituzten hastapenetan baino.

**Nola garatzen da zure klaseetako bat?**

Astean lau orduz aritzen gara eta gehienetan eskema berbera jarraitzen dut. Lehendabizi teoria jorratzen dut. Ondoren gorputza eta bere mugimenduak lantzen ditugu. Hau burutu ostean, ahots teknikari ematen diogu txanda. Azkenik, eta erlaxazio saio baten ostean, antzerki ariketekin hasten gara.

IRITZIA ▶ IGNACIO MIGUEL ARANBURU (TOLOSA AUTOESKOLA)

## Trafiko arau-hausleak du arazoa, ez besteek

**B**adirudi puntutako gida baimena datorren udatik aurrera martxan jarriko dutela Espainia osoan. Hainbat arau hautsiz gero —alkolehian positibo ematea, abiadura handian gidatzea, gerrikoa ez jartzea, telefono mugikorrez hitz egiten gidatzea...— puntuak kendu eta kopuru batera iritsitakoan, gida baimena kentzera iritsi daiteke. Gai honetaz hitz egiten hasi baino lehen, oraindik ezer ez dagoela ziur esan behar da. Gauza segurua bakarra da Espainian auto istripuz urtean 40.000 hildako eta 1.500.000 zauritu izaten direla. Azken horietako askok ondorio larriak izaten dituzte gainera.

Europako bost herrialdetan puntutako sistema hori jarri zuten duela urte batzuk. Alemanian 1984tik dago martxan, oso emaitza onekin. Italian hildakoak dituzten istripu kopurua %22 jaitsi da. Frantzia urtean 1.500 hildako gutxiago dago aipatutako sistema indarrean sartu zenetik. Sistemak funtzionatzen duela nabarmena da beraz. Trafiko arauak errespetatzen dituenak ez du beldurrik izan behar. Arauak hausten dituenak du arazoa. Eta denoi interesatzen zaigu arau-hausle horiek zirkula-

ziotik erretiratzea. Sortzen dituzten hildakoak eta zauritutakoez gain, gastu ekonomiko handia sortzen dutela argi dago.

Europako bost herrialde horietan antzeko sistemak erabiltzen dituzte. Frantzia 12 puntu ditu gidari bakoitzak eta horiek gal ditzake egindako hutsaren arabera. Erresuma Batuan berriz, alderantzizko puntuaketa da: gidari guztiak Otik abiatu eta urratutako aruari begiratu, hainbeste puntu eransten zaizkio, gida baimena galtzea suposatzen duen 12ra bitarte. Oraindik zehaztu gabe dago nolako sistema izango den hemen. Egun batean gida baimena galtzera iritsi daitekeela hasi dira zabaltzen batzuk. Frantzia, adibidez, ez da horrela. Egun batean gehienez 8 puntu gal dezakete gidari frantziarrek. Beste leku batzuetan sistema honen bidez galdutako gida baimena berreskuratzeak aukera ematen dute. Horretarako birziklatze ikastaro bat, azterketa teorikoa edo hila-bete batzuk gidatu gabe egin behar dituzte.

Lehen esan bezala, Espainian sistema hau oraindik ikerketa fasean dago. Badi- rudi udan jarri nahi dutela martxan.

Normala da. Udan izaten baitira bidai gehienak, eta, ondorioz, istripu gehienak.

Autoeskoletan trafiko arauak errespetatzen erakusten diegu etortzen diren ikasleei. Gero, behin gida baimena lortu eta gero, bakoitzak nahi duena egiten du. Inguruko guztiak stop-ak gelditu gabe pasatzen dituztela ikusten badute, gidari berriek ere gauza bera egiten dute. Une batzuetan beldurra ematen du autoan behar den bezala ibiltzeak, arau guztiak errespetatuz. Ikasleei klaseak ematen ari garenean, zebra-bide batean gelditzeagatik atzetik kolpea jasotzea izaten da istripu arruntena autoeskoletako autoekin. Atzetik datozen autoak stopa gelditu gabe pasatzeko prest egoten dira, ea eskuinetik norbait datorren begiratu. Eta orduan aurrean gelditu den autoa —egin behar den bezala— ez dute ikusten eta atzetik jotzen dute.

Zergatik sortzen dira auto-ilarak, hemendik Ordiziara joaten adibidez, obrak daudela eta? Lehendabizi seinale bat dago, lanean ari direla adieraziz. Hala ere ezkerreko karriletik dihoan autoak berean jarraitzen du. Aurreraxeago

bidea estutu egingo dela adierazten du beste seinale batek. Aurreratzen ari denak berdin jarraitzen du, kasorik egin gabe. Ondoren errepidea estutu egiten da. Ezkerretik abiadura handiz dihoana pasatu ahal izateko, eskuineko karriletik ondo dihoan bidea utzi behar izaten dio. Horrela sortzen dira auto-ilarak. Gidatze oso agresiboa ari da zabaltzen. Hezkuntza eta errespeto gero eta gutxiago dago errepidean. Eta ez gazteen artean bakarrik. Legeak besteentzat bakarrik direla dirudi, ez norberarentzat. Egutero hausten den araua gauza normala bihurtzen da.

Trafikoaren arduradunek hori guztia ikusi dute eta zerbait egin behar dela ikusi dute. Istripuetan hiru faktore izan daitezke eragileak: autoa, errepidea eta gidaria. Kasu gehienetan errua gidariarena dela nabarmena da. Autoek matxura gutxi izaten dituzte edo horregatik behintzat ez da istripu asko sortzen. Errepideak ere ez du eraginik kasu gehienetan. Gidaria da istripuen eragile garrantzitsua.

Azkenik, arauak behar bezala beteazterako zainketa gutxi dagoela esan behar da. Nahiko jenderik ez dagoelako, edo baliabiderik ez dutelako. Zerbait gaizki egiten dudanean, nork esango dit ezer?

NOELIA LATABURU



### PERTSONALKI ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1967ko uztailaren 1ean ▶ Antzerki irakasle, aktore, gidoigile eta kantari ▶ UBI amaiztean hasi zen antzerkian

**Antzerki mota.** Aurreikusit ezin daitekeena eta nire harridura lortzen duena **Aktore mutila eta neska.** Izen bana ematea gainontzekoak gutxiestea izango litzateke. **Tolosalderako antzezlanaren izena.** Errealitatearen transmisioa. **Aktore ona izateko errezeta.** Norbere buruari mugarik ez jartzea eta batez ere, lan asko egitea.

### ASVINENEA ELKARTEA

«Elkarte honetan taldean eta esparru ezberdinetan lan egiten ikasi dut, berekoikeriak alde batera utzita»



kin apurto nahi dugu. Lanen bat aurkezterakoan, adibidez, izenak banan bana zenbatu beharrean taldearen izena jartzen dugu, danok lan guztietan parte hartu dugula adierazteko.

**Eta aktore bezala zer lan egiten duzu?**

Orain oso garai onean nago. Duela urtebete Asvinenea elkartearen hasi nintzen eta oso esperientzia baikorra izan da niretzat. Baliabide gehiagorekin topatu naiz eta ni bezala bakarrik aritzen zen jendearekin elkartu naiz. Esparru ezberdinak jorratzen ikasi dut. Txontxongiloak mugitzen,

abesten, argiztapenarekin lan egiten, baina inoiz ez da nahikoa. Garrantzitsua ikasten jarraitzea da eta nire jakintzak ere besteei erakutsi ahal izaten, taldean lan egiteaz.

**Zure hurrengo proiektuak?**

Gertuen duguna Tolosako Txontxongilo Jaialdian egingo dugun, **Farsantes** izeneko antzezlan izango da, abenduaren 5ean estreinatuko dena. Antzeztearekin batera, txontxongiloak mugiaraziko ditut eta argiztapenarekin ere lagunduko dut. Gainera, jaialdiak irauten duen bitartean, Nafarroa etorbideko dendak apainduko ditugu txontxongiloekin.



## AZOKA ▶

Eguraldi onak  
asko eragin  
zuen atzoko  
azokan

Santu Guztien Eguna gerturatzeko ari da eta krisantemoen eskaintza handitu da

PABLO ALBERDI

Oso egun alai bizi genuen atzo azokan. Eguzkiaren eragina nabarmena izan zen eta goizeko lehen orduetatik erosleak ikusi ziren postuetan. Produktu eskaintza ere oso zabal izan zen, eta denen artean ehiza, perretxikoak, apaingarriko landareak eta barazkiak nabarmendu ziren.

Usoa 6 eurotan saldu zen, ondoak 15 eurotik 22ra bitarte, eta gibelurdinak, nikaloak eta ziza horiak 15 eurotan. Apaingarriko landareen artean krisantemoak aipatu behar dira, Santu Guztien Eguna gertu dago eta eskaintza izugarri handitu da.

## AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
Usoa	6,00	-
Oilaskoa	1,50	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Inbaurra	3,00	4,50
Sagar gorria	1,50	1,85

## Produktu ekologikoak

Udarea	1,92	2,72
Kalabaza	1,60	3,04
Patata	1,52	-
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,00

## Berdura plaza

Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Krisantemoa	3,50	20,00
Konifera	6,00	-
Azalea	3,50	10,00



## Amnistiaren aldeko bizikleta martxa

**LIZARTZA** ▶ Goizean abiatu ziren Ibarako plazatik eta Villabona, Zizurkil eta Tolosatik pasatu ondoren, azkenean Lizartzan amaitu

zuten Amnistiaren aldeko bizikleta martxa. Parte hartu zutenek, Lizartzara heldu zirenean bazkarian bildu ziren. INIGO TERRADILLOS

## TOLOSA ▶ GIZARTEA

Musika eta 'skate'-a,  
atzo Bonberenean

'Skate' txapelketan DJ-ak izan ziren; 'graffiti' lehiaketa ez zen egin; gauean Afrika eta Bad sound system izan ziren

INIGO TERRADILLOS

Bonberenean atzo iragarrita zeuden ekitaldietatik *graffiti* lehiaketa ez zen egin, baina bai *skate* txapelketa eta DJ-en musika, eta bestetik, *reagge* eta *soul* kontzertuez gozatzeko aukera izan zen, gustu edo afizio desberdinetako jendearentzat zuzenduriko egitaraua, beraz.

*Skate* txapelketa arratsaldean izan zen eta DJ-ek jartzen zuten musikak girotu zuen.

Gauean, berriz, bi kontzertu garrantzitsu izan ziren Bonberenean. Bata, Bad sound system talde irundarrarena; *reagge* musika zabaldu zuten hauek eskaini zuten kontzertuan.

Bigarren kontzertua Afrika, Guineako abeskariak eskaini



Skate txapelketa DJ-ak jarritako musikak girotu zuen. INIGO TERRADILLOS

zuen izan zen. Elektronika eta *soul*-a batzen dituen eta bakarlari bezala bere lehenengo lana den *Libre* izeneko diskoa aurkeztu zuen.

Modako musika dela esan daiteke atzo Tolosako Bonberenean ikusi eta entzun ahal izan zena, jende ugari bildu baitzen bi kontzertuetan.

## ALEGIA ▶

Txintzarri  
abesbatzaren  
saioa gaur

Txintzarri Eguna ospatzen da gaur eta Angel Unzu eta beste musikari batzuekin batera Txintzarri abesbatzaren emanaldia izango da 12:00-etan Alegiako San Joan Batailatzailearen elizan.

## TOLOSA ▶

Begirale  
ikastaroa  
antolatu dute

Laskorain ikastolak eta Kazkabarra taldeak, Urtxintxa begirale eskolarekin batera begirale ikastaroa antolatu dute Tolosan. Oraindik, astebeteko epea dago izena emateko eta 677 48 99 71 telefonora deituz egingo da.

## ZIZURKIL ▶

VII. Azoka  
Berezia egun  
osoan zehar

Gaur 11:00etan hasita eta egun osoan zehar VII. Azoka Berezia egingo da Zizurkilen. Baserriko produktuak eta artisauak eta 19:00etan *Iturrian zer dago?* bertso eta dantza saioa izango dira. Pausenetik Zizurkil Goiko plazara etengabe aautobus zerbitzua izango da doan.

## AMEZKETA ▶

Antton Karrera,  
Gipuzkoako EBko  
koordinatzaile

Atzo izan zen Donostian Gipuzkoako IU-EB-Berdeak alderdiaren batzarra. Antton Karrera amezketarra Gipuzkoako koordinatzaile izendatu zuten berritako Beste hautagairik ez zen izan.

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Autoa.** Peugeot Partner zuria; 1.900 Diesel. Oso egoera onean. Deitu 609 84 61 57 telefonora.  
**Autoa.** Renault Laguna, 1.900 Diesel, 100 zaldi, Tope Gama. Telefonoa: 636 386 527.  
**Zakurrak.** Pastor Aleman arrazako zakurkumeak salgai, bi hilabeteak. Interesatuak deitu: 943 68 31 86 (09:00etatik 13:00etara).

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.  
20150 ADUNA  
Tel. 943 69 68 64  
Faxa: 943 69 68 47



Zumeta



Promozioa eta  
eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98  
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

**HITZA, eskualdeko plaza**  
**661 678 818 Toki aproposa iragartzeko**  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

36. ABESBATZA LEHIAKETA ▶



Kutxako Gizartekintzaren zuzendari Jesus Mari Alkainek, TEEko lehendakari Lukas Mendikutek, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta Foru Aldundiko kultur ordezkari Imanol Agotek aurkeztu zuten herenegun aurtengo Abesbatza Lehiaketa Donostian, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. I. ETXEBESTE

# Ahots gozoeen zain

Herenegun aurkeztu zuten hilaren 27an hasiko den 36. Abesbatza Lehiaketa; hogeita sei talde ariko dira, eta Bello Porturi egindako omenaldiak zabalduko du

**IRATXE ETXEBESTE**

«Alkate izateak baditu pribilegio batzuk, eta beste hainbat gauzaren artean Goriziara (Italia) joateko aukera izan dut uda honetan, abesbatza lehiaketa batera. Hunkitu egin ninduen han ikusitakoak, eta zer pentsa eman zidan, abesten ari ziren hainbat taldek euskara erabiltzen zutelako kantatzeko». Gisa horretara eman zion Tolosako alkate Jokin Bildarratzek aurtengo Tolosako Abesbatza Lehiaketa aurkezteko herenegun Eusko Jaurlaritzak Donostian duen egoitzan egin zuten ekitaldiari hasiera. Izan ere, mila pertsonak baino gehiagok ikasten dituzte urtero euskarazko abestiak Bildarratzen hitzetan, eta munduan zehar erabiltzen dituzte gero, lehiaketaz lehiaketa. «Kanpotik etorritakoak euskara ikastea eta za-

baltzea garrantzitsua da Tolosarentzat, Gipuzkoarentzat eta Euskal Herriarentzat», eta ildo horretan Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE) egiten duen lana goraipatu zuen Bildarratzek. Eskertzekotzat jo zuen, halaber, Foru Aldundiak Leidor aretoarekiko duen jarrera. Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erdibana finantzatzeko dute aretoa eraberritzeko proiektua, eta «plan berezi baten bidez» egingo dute hori. Imanol Agotek, Foru Aldundiko kultur ordezkariak, berretsi egin zuen Bildarratzek esandakoa, eta berritze lanak ahalik eta azkarren egitea eskatu zuen, abesbatza «sendotuta» dagoen lehiaketa izaki, Gipuzkoa mailako kultur zirkuitoa osatuko badu baliabide egokietan egitea «beharrezkoa» delako. Alkateak esan zuen ostegunean itxi zela Lei-

dorreko proiektuak aurkezteko epea, eta interesa sortu duela, izen handiko adituek egin dituztelako proposamenak. Aurreko edizioetan bezala, «mundu guztiko abesbatzak etorriko dira aurtun ere lehiaketan parte hartzera». Horixe aurreratu zuen TEEko presidente Lukas Mendikutek. Ahots nahasietako abesbatzak, ahots berdinetako abesbatzak, haur abesbatzak eta ahots taldeak ariko dira, eta gizonzkoek bakarrik osatutako abesbatza bakarrak jardungo du: Iruñeko ahots baxuenak, hain zuzen ere. Abesbatza aipagarrienen inguruan galde-tuta, «errepertorio zailenak prestatzeko abilezia» duten Erresuma Batuko hiru abesbatza etorriko direla zioen Mendikutek, eta lehenengoz, Txinako haurrak ariko direla nabarmendu nahi izan zuen.

Norvegiatik, Kubatik, Holandatik, Italiatik... leku askotatik etorriko dira abesbatzak, eta Mendikutek aburuz, «kalitate handikoak» dira guztiak. Kultur elkartruke hori oso garrantzitsua da alkatearen uste-tan, «gure hizkuntza zaharrean kantatzen dutelako, eta era berean, guri haien nortasunaren, kulturaren, ohiuren eta abarren berri ematen digutelako». 26 abesbatzak jardungo dute hilaren 27tik aurrera Tolosan, eta horietatik hiru Euskal Herrikoak dira: Leioa, Iruñea eta Gasteizkoak. Guztienak izango dira ahots gozoak, ziur.

**ZUZENKETA ▶**  
Atzo argitaratzekoa zen orri hau, baina inprenta akats batez, GOIERRIKO HITZAKOAK atera zen bere ordez.

## Javier Bello Porturi omen

Euskal musikaren irudi garrantzitsuenetako bat hil zen Donostian 2004ko otsailaren 13an. Abesbatza eta orkestra zuzendari bezala, konpositore, orkestratzaile, musikologo, hizlari eta artikulu idazle gisa garatu zuen bere jarduna. Ase ezinezko jakinminez, gure herriko musika eta literatura ikertu zituen. Javier Bello Portu zena oso gogoan du Tolosako herriak, eta hari omenaldia eginez hasiko da aurtun Abesbatza Lehiaketa.

36. edizioa modu horretara haseta («egin beharrekoa») zen Jokin Bildarratzen hitzetan, omenaldi hori Tolosako Udalak eta herriak musikariarekin zuen «zorria» baita. Euskal kulturari hainbeste eman dion nortasun poliedrikoari omenaldi kontzertua egiteko TEEri lotu zaio Udala, «elegantzia fineko, modernotasun dotoreko eta sentikortasun leuneko abesbatza eta ahots egileak hori eta gehiago merezi duelako».

Bello Porturen urtebetetze egunean, hilaren 30ean, izango da kontzertua San Frantzisko elizan (20:30ean), eta ia ahaztuta dauden bere gaztaroko lanetatik abiatuta, Abesbatza Lehiaketan askotan programatutako bere errepertorio ezagunenak eskainiko dituzte, abesbatza eta ahots ibilbide bat planteatuz, bere azken konposaketa batzuk estreinatuz eta abestuz bukatzeko.

Ospe eta ibilbide ukaezineko hiru euskal abesbatza; Enrique Azurzak zuzendutako Hodeiertz eta KEA ahots taldea, Javier Bustok zuzendutako Kanta Cantemus Korua izeneko emakume taldea eta Josu Okifiena pianojolearen laguntza izango duen Al-mudena Ortega sopranoa izango dira kontzertua eskainiko dutenak. «Berezia» izango da, alkatearen arabera. ◀



## 36. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Babesle Ofiziala

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Txintxarri Eguna. Elizan, 12:00etan, Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak. 14:30ean, bazkaria Tolosaldea jatekxan.

**Belauntza.** Jubilatuen Eguna. 12:00etan meza; ondoren toka txapelketa; 14:00etan bazkaria eta, bertsolari eta trikitalariak.

**Tolosa.** Haritze elkartearen 18:30-20:30, Iribarren musika taldearekin.

**Zizurkil Goia.** VII. Azoka Berezia. 11:00-19:30 baserriko produktuak eta artisauak; 12:00etan *Baserriko argia* eskulturaren ekitaldia eta sari banaketa; 14:00etan txahal erre jatea; 19:00etan *Iturrian zer dago?*

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea 2 (Tolosa). 943 654 610. Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112.

**Bihar.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40. Plaza, M. Elbarren, 36 (Leitza). 112.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El fuego de la venganza.* Leidorren 17:00, 19:30 eta 22:30ean. Bihar 19:30 eta 22:30ean.

# Auzozainak auzoetan

**TOLOSA ▶** Udaltzaingoak bi auzozain kontratatu ditu, baserri-auzo, industrialde eta herrian bertako hainbat guneren zaintza egin dezaten



Atzo feria eguna izaki, lan dezentea izan zuten trafikoa zaindu eta bideratzen, esate baterako. J. ASTIBIA

**JAIONE ASTIBIA**

**A**uzozainak dira. Tolosako Udaltzaingoak abian jarri duen zerbitzu berria da eta bihurtik aurrera ekinen diote lanari.

Zerbitzu berri honen helburua «Tolosako auzoak etenga-

be zaintzea» dela eman dute jakitera Udaltzaingoko buruztatik. Horrela auzozainen lan esparrua landa edo baserri auzoak, industrialdeak, herri barrua, parke eta lorategiak, udal ekipamenduak eta beste izanen dira. Goiz eta arratsaldez, batez ere herriko auzoetan

ibiliko dira, zaintza lanak egingen.

Beren eginkizun nagusia auzoetako arazoetaz ohartztea izanen da eta bide batez «agenteak berak emanen dio horren berri dagokion udal zerbitzuari edo teknikoari, eta baita bertako bizilagunei ere,

egin duen bideraketaz», argitu dutenez. Auzoetako trafikoarekin erlazionaturik, ikastetxe inguruetako zirkulazioa, behar den kasuan atestatuak egitea, kalean utzita dauden ibilgailuen berri ematea... izanen dira beste betekizun batzuk.

Bereziki «garrantzitsutzat» jo duten zeregina, ordea, udal ordenantzak betetzen diren ikuskatzea eta dagokien kasuan informazioa eman eta beteaztea izanen omen da, arlo horretan zigorrak ere ezar ditzaketelarik. Hauen artean daude esate baterako, birziklatzeko edukinontzien erabilera eta etxe nahiz dendetako zaborrak nola maneiatzen diren zaintza; edo etxe-animalien gainean jabeek dituzten betebeharrak —zakurren gorotzak jasotzea, arraza arriskutsutzat jotako kontrola...— beteaztea; udal-baimenik gabeko lan eta jarduerak geldiaraztea eta salaketa egitea...

Honetan, bi lagun ariko dira erabat lanean «zerbitzu egonkorragoa eskaintzeko asmoz» eta «jendearengandik hurbilago egonez», auzotarren iradokizun eta kezak ere jasotzea ahalbidertuz.

Baztarretik ibili!

**ZORION AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**

Berriz ere maiteko dio nire amak aitari, nire aitak amari... Zorionak eta besarkada handi bat bion bihurtzeko partez.



**URTE ASKOAN**

**Iraitz (Tolosa).** Zorionak eta hiru muzu handi eteko gizon bikari bihurtzeko partez. Eta idoaarentzat ere muzu handi bat.



**URTE ASKOAN**

**Iraitz (Tolosa).** Bihar 3 urte. Zorionak etbekeon partez eta muzu asko.



**URTE ASKOAN**

**Angela Martinez Gorostazu (Tolosa).** Eskuminak, bihurtzeko partez (Rene).

**HITZA, zorion agurren tartea**

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoizetara:**  
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
 Udaletzeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
 Mila esker!